

## Erramu-igandeko ospakizuna

### Aurretik prestatu...

Ospakizuna egiteko otoizlekua, kapera edo eliza girotu. Ospakizunean erabiliko diren askotariko gauzak prest izan: orria, olibondo-adarraren marrazkiarekin; kartulinak; guraizeak; margoak...

### Hasiera...

Ospatzaileak ongi etorria adieraziko die partaideei (heldu eta haur), ospakizunaren inguruko azalpenak emateaz batera.

Isiltasuna eta barruko entzutea ahalbideratuko duen giroa sortuko dugu, besteak beste, erlaxazio-ariketak eginez: jarrera eroso bilatu, gure gorputzaren atalez jabetu, gure buruko zaratak uxatzen saiatu, arnasa patxadaz hartu... musika gozoaz laguntzea egokia izan daiteke.

Isiltasuna egin eta denok, heldu eta haur, elkarrekin gaudela, Erramu-igandeko kontaketa entzungo dugu.

Erramu-igandeko ebanjelioa (Mt 21, 1-11)

*Jerusalemera hurbildu zirenean, Oliamendi inguruko Betfage herrixkara iritsirik, bi ikasle bidali zituen Jesusek, esanez:*

*«Zoazte aurreko herrixka horretara; berehala, asteme bat aurkituko duzue lotuta, eta astakume bat harekin; askatu eta ekarri niri. Eta inork ezer esaten badizue, erantzun: "Jaunak behar ditu, baina berehala itzuliko ditu"».*

*Hori Jainkoak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen: «Esan Sion hiri ederrari: "Hara, badatorkizu zeure erregea, apal eta astotxo baten gainean, astakume baten gainean"».*

*Joan ziren, bada, ikasleak eta Jesusek agindu bezala egin zuten. Astemea eta astakumea ekarri eta beren jantziak bizkarrean ezarri zituzten, eta Jesus gainean eseri zen. Askok eta askok jantziak zabaldu zituzten bidean; beste batzuek, berriz, zuhaitzei adaxkak moztu eta bidean hedatu zituzten. Aurretik eta atzetik zihoan jendeak honela zioen oihuka:*

*«Hosanna Daviden Semeari! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Gora Jainko gorena!».*

*Jesus Jerusalemen sartu zenean, hiri osoak, asaldaturik, galdetzen zuen:*

*«Nor dugu hau?»*

*Jendeak erantzuten zuen:*

*«Jesus profeta da, Galileako Nazaretetkoa».*

Egokitzen joz gero, taldearen arabera, Ebanjelio hau marrazkietan ikus daiteke ondorengo estekan:



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta  
Katekesirako Ordezkaritza  
Delegación de  
Anuncio y Catequesis



<https://www.youtube.com/watch?v=4bFkYP6ZbnI>


Ospatzaileak testua ulertzen eta nork bere egiten lagunduko du ondorengoak bezalako galderak eginez:

- Zer gertatu da? Nora zihoan Jesus? Zer egiten du jendeak? Zer esaten diote?
- Pertsonaia garrantzitsuren bat hiri batera iristen denean, zer gertatzen da? Jendeak harrera egiten dio? Nola?
- Zergatik zeramatzaten palmondoak? Zer adierazi nahi zioten Jesusi palmondo horiekin? Asko maite dutela, beraientzat oso garrantzitsua dela, berarekin egon nahi dutela...?

Haurrak eta beren familiak gelako bazter batera joango dira Jesusi harrera egiteko palmondo-adarrak prestatzera. Olibondo-adarraren orrialdea banatuko diegu eta beraiek, margoak, kartulinak, guraizeak,... erabiliz, adarrak prestatuko dituzte. Gainera, zer dela-eta hartu nahi duten Jesus beren bizitzan, zer esan nahi dioten... idatziko dute.

Guzti hori burutu ondoren, adarrak aurkezteko, idatzi dutena irakurtzeko eta dena erdian uzteko eskatuko die ospatzaileak.

Familia guztiek hori egiten dutenean, Gure Aita errezatuko dute eta, azkenean, abestuz Jesus goratuko dute.



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta  
Katekesirako Ordezkaritza  
Delegación de  
Anuncio y Catequesis

*esnatu*